

Nicole & Martin antzerki konpainiak lau saio egingo ditu Diman

12. orrialdea

1a kilometro bat lubaki

Oin dala 6 urte hasi ziran Lemoatxen 1936ko gerrako lubakiak errekupe-retan. Denporeagaz eta bertan topautakoaren garrantziagaitik, eremua asko zabaldu da eta lana espezializatu egin da. Aurten Auzolandegietara etorritako gazteak hasikerako lubakiak txukuntzen egin dabe behar; espezialistak barriz, eremu barria zabaldu dabe. 12. orrialdea



Ekhi eta Lur Ziarrusta eta Aitor Erauzkin Europako Pelota Txapelketan

10. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

301

2018ko urri lehenengoaren 3a
hamabostekaria
www.begitu.org

Musika eskaintza handia Arteako Andra Mari jaietan



Herrietako udako atzenengo jaiak dira Arteakoak, baina musikaz betetako astegoiak bi dakarrez.

Astegoiak bi hartzean dabez Arteako jaiak. Lehenengoan, urri lehenengoaren 7tik 9ra, herriko jaiak dira, eta hurrengoan, MerkArtea. Lehenengo astegoienean, Governors-ek, Desorek, Rockaleanek eta Los Zopilotes Txirriaos-ek eskainiko dabez kontzertuak. MerkArtea azoka egunaren bezperan, Lizzies-ek, On taldeak eta Penadas por la ley-k animauko dabe gaua. Hurrengo egunean, Pantxo Carrere, Bihotz Gorospe, Juanxu Urkiaga, Arantzarte Dantza Taldea, Durangoko koroa, Gontzal Mendibil, Iker Diez, Musika Eskolako umeak, Pauline eta Juliette, Pello Artabe, Juanpa Agirre, Juanma Labandibar, Esti eta Olatz eta Ibon Iza egongo dira. 5. orrialdea

Bizi Igorreren aurkezpena Torontoko Biltzarrean

Azabuztuaren 8an Itsaso Bengoetxea Igorrekoak Bizi Igorre proiektua aurkeztu eban Torontoko Ryerson Unibersidadean Zahartzearen gaineko XIV. Mundu Mailako Biltzarrean. Igorreko Jubiladuen alkarteko Felipe Benaola eta Jabi Zuluaga be egon ziran bertan. BEGITU be haraino joan zan bertan gertatutakoa kontetako. 8. eta 9. orrialdeak



UBIDE

Irantzu Lekueren mural parte hartzaileak pintau dabez

Ubideko sarreran, Irantzu Lekue artista ezagunaren muralak dabiz pintetan ubidezarrak udal eraikin baten. Muralak herriko historia eta ubidezarren ezaugarriak kontetan ditu.

Artistea ubidezarrak baten alabea da eta Ubiden pasetan ditu denporditxoak. Udalak herriari bizitasuna emoteko egokiak jo ebazan Lekueren mural parte hartzaileak eta erantzun ona izan dau herritarren aldetik. 7. orrialdea



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Hirurehun BEGITU eta gehiago

Azabuztuan, BEGITUko 300. zenbakia kaleratu zan. Zenbaki biribil hori dala eta, BEGITU aurrera ateraten dauan Zertu Kultur Elkarteak balantzea eta aurrera begirako hausnarketea egin dau.

Hamabostean behin aldizkaria kaleratzeko, jente askoren lana, dirua eta kolaborazioa behar izaten da eta Zertuk eskerrak emoten deutsez danai, baina batez be irakurleai euren inplikazioagatik.

Tokiko euskerazko komunikabideen hausnarketea egiten dau gero. Euskerearen normalizazioan daukien garrantzia azpimarratu eta komunikabideen zeregina demokrazia indartzen gogora ekartzen dau.

Atzenik, prensa idatzia bidekurutzetan dagoala uste dau Zertuk eta laguntzea eskatzen deutso Arratiako jendarteari teknologiak dakarrezan erronkai aurre egiteko. 13. orrialdea

E P A
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea,
Iraila osoa.
Tlfn. 94 456 60 98
Helduen heziketa

E.P.A.
IGORRE: Elejalde 22. Eleizako lokaletan

ARRATIA KOLOREETAN

LITERATURA IRAKURLEEN TXOKOA

Aurreko zenbakian komentau genduan moduan Nerea Goioagaren proposamenari jarraituko deusagu eta literatura-kritikak egongo dira espazio honetan. Oin, liburuen kritikak egin eta BEGITU bialduteko prest dagoan jentea behar dogu eta barriro be irakurleokana jotea gura dogu, prest dagoan jente guztiak auke-rea izan dagian bere kritikea BEGITU publiketako. Horretarako, interesauak email bat bialdu behar dabe begitu@topagunea.com helbidera.

Gure literatura kritikoen zerrendea osotuten dabena, bialduko jakiez zehaztasunak (luzeerea, bialtzeko atzen eguna, eta abar).



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri lehenengoaren 3tik 9ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Urri lehenengoaren 10etik 16ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Urri lehenengoaren 17tik 23ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areata: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 38 50 14

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areata: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatako Notariotza

94 673 92 26

Bizkaibus 94 612 55 55**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri**(Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00,

16:00.

* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Ermitabarri-Arrigorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioarrik ez dago.

Babesleak:

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Goizalde Badiola (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milkua (Areata), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

Tiradea: 7.300 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com


BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Zal



Gero eta gitxiago entzuten dan berba bat dakargu orain: zal (sála, ahoskatuta). Era bi honeetara erabilten dogu gure artean: 1) Persona gogorra, ezetz esaten ez dauan horreetarikoa; baita gorputzaldi sendo edo osasuntsu sentiduten dauana be izan leiteke. 2) Okelearen giharrari edo muskulu gogortuari be dagoala esaten jako; adibidea: "Ezaun da basoko ganaduaren okelea zal dagoana". Batuan, zail da.

ERETXIA

Eukalipto

Ea ba nok asmatzen dauan zer daukadan buruan: al-tua da, azkar hazten da, zugatzta da, Australiakoa... Hori da bai, eukalipto! Tiratan erortzen jakon azal leuna deigarri egiten jaku ikusten dogunean. Batez be, kostaldean nabaritzen dogu bere presentzia; egun eguzkitsu honeetan hondartzara hurreratu zarienok bere ondotik igaro zarie seguruenik. Eta hondartza gustetan ez jakunori? Ez dogu zugatz honen itzalagaz gozatzeko aukerarik izango? Bai, egon lasai. Basoetako freskurearen bila ibiltzen garanok, oin dala urte batzuk ez bezala, gaur egun badaukagu aukerea Euskal Herritik urten barik "baso tropikal exotikoetan" murgiltzeko.

Etxe askotan, arnas bideetako arazoak osatzeko erabilten dira eukaliptoaren hostoak eta fruituak, zoritxarrez gero eta gitxiago; mailukizko txikieez aspertuta, eukaliptoazko txikleak jaten doguz... Eta danetan garrantzitsuenena: papela egiteko ezinbestekoa da. Hara! Horregaitik hainbeste eukalipto bat-batean? Pinu landaketen inbasioa okertzera bidean, eukalipto landaketak nagusitzen dagoz gure paisajeen, pinua zatarra dala pentsetan genduan askok faltan botatan hasiz. Noren idea zoragarria izan da?

Eukalipto landare polita da bere habitat naturalean, bere fruituak usain gozoa emoten dabe... Baina espezie exotikoa izateaz gainera, inbaditzailea be bada, lurzorua azidifikau, pobretu eta lehortzen dau-eta. Hau dala eta, ez deutse beste landareai hazten ixten, beraz, eukalipto landaketetan ez dago espezie dibersidaderik, eta gainera, lurzorua berreskuratzea ezinezkoa egiten dau.

Gaur egun ezetuten doguzan basoak ez dira gure benetako basoak, gure aitita-amamak esango leukien moduan. Bizkaiko basoen hiru laurdenak hazkuntza azkarreko espezieak osotuten dabez. Bere sasoiari, pinua landatu



GARAZI SANTOS

Ingurumen Zientzietan
graduatu

zan baso autoktonoen kopurua murriztuz; gaur egun, ostera, pinuaren ordean eukalipto da nagusitzen dana, eta ez gizar-tearentzat hobea dalako, etekin ekonomikoa lortzeako pinua baino "erosoagoa" dalako baino. Gipuzkoa eta Bizkaiko basoen jaubetzearen hiru laurdenetik gora pribadua da. Kasualidadea ete? Eta gurera etorrita, Arratiako basoak? Konturatu zarie gero eta eukalipto gehiago dagozala? Norbait aberastu guran dabil, ala?

Jentea kanpora bizitera doala entzuten dodanean, neure burua egoera horretan imajinetea kostau egiten jata. Orduan, gure kostaldea, mendiak, herriak eta gure kultura zenbat maite dodazan konturatzen naz. Horregaitik, Amalurra jagoteko daukagun gaitasun eskasak amorrua emoten deusta. Ez dakit zuei be gertatzen jatzuen, baina ez naz gogoratzten Igorreko saihebidia baino lehenago zelangoa zan mendi magala; ez naz gogoratzten, Durangora noanean, Abiadura Handiko Trena eregiten dabizen inguruan zenbat baserri egozan; ez dodaz Goi Tensinoko Lineagaz desagertu arazo gura dabezan Aramotzeko inguruak aitzu gura... Laburbilduta: ez dot lanbroak ezkatutzen dituan gure bazterrak eukaliptoazko basoa izatea gura.

Honegaitik guztiagaitik, argi eta garbi adierazoz gura dot herritarren kontura gitxi batzuk zelan aberasten diran ikusteaz kokoteraino nagoala, eta nazkatuta, honek babesten dituen politikariez. Non jarri behar da muga? Urkiola, Gorbeia edota Urdaibaiko basoak eukaliptoaz ordezkatu arte ez da araudia aldatuko? Orduan dirutzea gastau beharko da bertokoa dan basoa berreskuratzeke? Ez da hobe berandu izan baino lehen basoen ustiapen sostengarri baten aldeko apustua egitea? Gure basoen etorkizunaren kontura aberastu gura dabenak doazela Australiara euren eukalipto maiteakaz!

LUMATUTEN



XABIER LAMIKIZ

Immigrazinoaren auzia

Etorkinak begi txarrez ikus-
teko benetako errazoirik,
errazoi orokor eta sendo-
rik, errazoi errazoiturik, ez dago.
Etorkinen kontrako argudio sendoak
dituela dinoenak benetan
diagnostikau bako nortasun krisi
zorrotza da daukiena, besterik
ez. Eta etorkinen aurkakoak fededunak
badira, orduan ebanjelioak barriro
irakurteko ordua heldu dala esango
neuskie, inoz irakurri baditue. "La-
purak dira", "arazoak sortzean
ditue" edo "bertakoai baino diru
laguntza gehiago emoten jakiez"
mantren jatorria ezjakintasunean
dago, eskola garaian irakasleari
jaramon gitxi egin izanaren ondorio.
Etorkin gehienak euren kabuz
baliatzen dira, inori kalterik egin
barik. Badagoz hareen etorrereagaz
lanbide askotako soldatak jeitsi
egin dirala argudiatzen dabena,
eta ez jakie errazoirik falta.
Baina horren errudunak ez dira

etorkinak, egoera ekonomikoa eta
enplegatzaileak baino, eta lan-
legedia be bai, eta, hartara,
gubernua, edo gobernuak, han-
goa eta hemengoa. Soldatak jeitsi
dirala? Bota errua, errua dauka-
ri, mesedez. Populismo xenofoboak
suspertzen dituan neurrian,
immigrazinoaren auziak ondorio
politiko larriak izan daitez. Izan
be, Europako demokrazien osa-
suna eta biziraupena arriskuan
dagoz, eta tamalez, egoereak ez
dirudi hobera egingo dauanik.

Zer esan etorkinen alde? Ba
behar-beharrezkoak dirala, errazoi
desbardinakaitik. Hemen bakarra
aitatuko dot, neurekoikeria hutsa
bada be. Bueno, aitatu ez, iradoki
egingo dot gero zuek kontuak a-
tera dagizuezan. Eustaten arabera
egun Erkidegoko ugalkortasun-
indize sintetikoa (andra batek bere
ugalkortasunaren bukaeran izan-
go dituan seme-alaba kopurua)
1,35 da. Aurreko belaunaldia
ordezkatzeko andra bakoitzak 2,1
seme-alaba izan beharko leukez.
Eta berandu da beste *baby boom*
bat izateko. Ez dakit zuei, baina
niri, jubiletan nazanean, pensinoa
kobretea gustauko litxakit.

ZERTZEAN



IRATI ASTONDOA

Gaia jarrita: "Jaiak"

1

Arratieko plaza gehienak hartu dabe kolorea herri edota auzoko jaietako emoteko itxurea ume, gaztetxo edo helduak bardin dotso edadea a(ha)l dan artean zelebratzeko urteroko ohiturea.

2

Kontziertu ugari etorri jakuz logure apur bat kentzeko Riot, Zea Mays ta Zopilotes Gozategi, Kaotiko Arratiako gazte guztiek asetute egoteko gero berbenak gau luzeari amaiera emoteko.

3

Gure helduei etxake faltan luntxa ta barauskarria kontu kontetan ta lau bat mosto kentzeako egarria jubilatuen bazkari ederra presentzi zoragarria herri danetan eurak baitire gure jaien oinarria.

4

Txikitxoek ezin paraurik hara ta ona olgetan dana barria, dana kolorez a(ha)l dan dana disfrutetan jantzan topera karaokeak saltoka koltxonetetan pare bat txurro jan ta lotara gozo-gozo hamarretan.

5

Hau da jai danek daukien alde positibo eta ona baina oingoan egin behar dot kritika zabal sakona dana galazo, dana arazo ta dana ezin egona hauxe da bakar batzuk daukien bizitzeko zoriona.

6

Jaietako dire herritik sortu ta herritarrek gozatzeko ta zoritarrez asko daukogu oindino be ikasteko bakoitzak gure eskubideak pega barik eukiteko nire herrian asko falta da horretara iristeko.

BEGI TXINDORRA

Holan bai ondo! izenpean, Gironan ateratako argazki hau bialdu deusku Xabier Arauzok. Bai horixe! Ederra da egonean egotea, gero eta mobimentu gehiago eskatzen deuskun gizarte honetan! Batzuek ez dakie geldirik egoten, baina egundoko plazera da. Askok udan bakarrik, disfrutat leikiena.

Xabier Arauzok egin dauan moduan, udako momenturik ederrenak BEGITUKO irakurleakaz konpartidu eta sari eder bat eroateko aukerea izan gura badozu, bialdu zure argazkiak begitu@topagunea.com helbidera urri lehenengoaren 25a baino lehen.

Zorte on!



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bilaka
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zirkulu 100
R.P.S. 21/06

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanakoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARTEA

Lizzies metal taldea, On taldearen rock melodikoa eta Penadas por la ley taldearen punk musikea MerkArteako bezperan

Astegoien bi hartzean dabez Arteako jaiak.

Lehenengoan, urri lehenengoaren 7tik 9ra, herriko jaiak dira, eta hurrengoan, MerkArtea.

Erredakzinoa

Lehenengo astegoienean, Governors-ek, Desorek, Rockaleanek eta Los Zopilotes Txirriaos-ek eskainiko dabez kontzertuak; eta erromeriak eta kalejirak be ipiniko dabe musikea. Jai egitarauak oliaskoa eta tortillea jateko; kuadrillen olinpiadetan edo Play-backean parte hartzeako, edo magiagaz, esku peloteagaz eta euskal jantzakaz gozatuteko aukerea emoten dau.

MerkArtea Azoka egunaren bezperarako be, kontzertu kartel interesgarria prestatu dabe Artean. Izan be, metala, rock melodikoa eta punk musikea gozatuteko aukerea egongo hilaren 14ko gaubean. Lehenengo talde biak gehiago ezetu guran itxi deuskue Arratian; Lizzies taldea Dimetaleko bigarren edizioan jotekoa zan, baina bertan behera geratu zan emonaldia abeslaria gaisotu egin zalako; eta On taldeko Itsaso Rodriguez-en gitarrea be entzun izan dogu Lemoan Itxaro Bordaren poemai musikea ipinten.

Baseriko produkturik onenak erosteko aukerea egongo da hurrengo eguneko azokan. Orduan be ez dira faltauko bertsoak eta musikea eta Arratiako musikariak izango dira protagonista; tartean, Bihotz Gorospe, Gontzal Mendibil, Juanma Labandibar eta Esti eta Olatz.

Urri lehenengoak 7, barikua

18:00etan, txupinazoa eta kalejireia

herrian zehar Areatzako BatucAKKB batukada taldeagaz.

20:30etan, oilasko jana.

21:00etan, erromeria Joxe Mendizabalen eskutik.

22:00etan, umeen Play-backa.

24:00etan, Governors eta Desore taldeen kontzertuak eta DJ Buruz Buruka.

Urri lehenengoak 8, zapatua Mozorro jai mexikarra

10:00etan, Tortilla Txapelketea plazan.

11:00etan, umeentzako puzgariak eta jolasak frontoian.

12:00etan, kalejireia Musika Eskolako ikasleen eskutik.

14:00etan, tortilla dastaketea eta sari banaketea.

17:30etan, kuadrillen olinpiadak.

21:00etan, Rockalean taldea.

23:00etan, nagusien Play-backa.

24:00etan, Los Zopilotes Txirriaos-en kontzertua eta Luhartz taldeagaz erromeria.

Urri lehenengoak 9, domekea

11:00etan, esku pelotea frontoian.

12:30etan, euskal jantzak frontoian.

14:00etan, kopautxoa jubila-duentzat.

16:00etan, Mus eta Briska Txapelketa.

17:00etan, Patin eta Molto Txapelketa.

19:00etan, Jokaldi taldeagaz erromeria.

21:00etan, txokolata.

Urri lehenengoak 14, barikua

14:00etan, jubiladuen omenezko bazkaria.

17:00etan, Imanol Ituiño magoa Kultur Etxeko Aretoan.

22:30etan, kontzertuak. Lizzies, On eta Penadas por la ley taldeak.

Urri lehenengoak 15, zapatua MerkArtea eguna

10:00etan, MerkArtea azokearen hasikerea.

11:30etan, bertso-poteo musikatua. Oihana Iguaran, Jon Maia eta Orkresta elektrotzarangea.

20:30etan, I. Arratia Kantuan. Pantxo Carrere, Bihotz Gorospe, Juanxu Urkiaga, Arantzarte Dantza Taldea, Durangoko koroa, Gontzal Mendibil, Iker Diez, Mu-



Argazkia: On taldea.

sika Eskolako umeak, Pauline eta Juliette, Pello Artabe, Juanpa Agirre, Juanma Labandibar, Esti eta

Olatz eta Ibon Iza.

24:00etan, erromeria Tximeleta taldearen eskutik.

ARRATIA

Antzerkia, bertsoak eta kirola Elizondoko andramarietan

Erredakzinoa

Ikasturtea edo lanurtea hastear egon arren, urrietan jarraituko dabe hainbat auzunetan jaiak ospatuen. Urri lehenengoaren lehenengo hamabostaldi honetan, esate baterako, San Antolin (Sainduniak edo sandoniak) eta

Andramariak ospatzen dira.

Sainduniak Dimako Oban ospatu ditue, antzerkia eta kirol jarduerakaz. Lemoatxen be, Baba Lehiaketea eta erromeria antolatu eben lemoaztarrak San Antolin jaiak ospatuteko. Hilaren 8an, Lemoako Elizondo auzunean ospatuko dabez andramari jaiak.



Elizondo (Lemoa) Andra Mari jaiak

Urri lehenengoak 7, barikua 19:00etan, umeentzako jolas eta tailerrak.

20:30etan, Zeaniko Uribe Taldearen antzezlanak.

Urri lehenengoak 8, zapatua 12:00etan, mezea.

13:00etan, poteo musikatua "Kittu"gaz Bikandi tabernatik hasita.

15:00etan, bertso bazkaria. Bertsolariak: Uxue Alberdi eta Onintza Enbeita. Tikitak udaletxean salgai urri lehenengoaren 3ra arte. Kulturguneko plazan.

17:15etan, I. Andra Mari Futbol Txapelketea, Lemoako Harrobi Taldeko nagusiak, Arlonagusian.

20:30etan, poteo musikatua Taberna ibiltaria taldeagaz Elizondotik.

Urri lehenengoak 9, domekea

10:00etan, Lemoa Txirriindulari Elkarteak antolatuta, Lemoako erlojupeko I. BTT lasterketea. Gaztetxeko aparkalekuan.

LEMOA

Su hartu eban ogia egiten dauan enpresa batek

Erredakzinoa

Mendieta auzoan dagoan Panaderia Lemoa okintza enpresek su hartu eban abuztuaren 26ko gaubean. Suteak eragindako kalteak materialak izan ziran bakarrik eta ez zan zauriturik egon.

Sua iluntzeko 20:45ak aldera biztu zan. Oin arteko informazioen arabera, badirudi ez zala



Argazkia: Bizkaiko suhiltzaileak.

izan apropos egindakoa eta sua hasi zanean han ez egoan inor. Fabrikeak solairu bi daukaz: bata

ogia egiteko eta bestea biltegia. Suhiltzaileak 23:00ak aldera lortu eben sua amatatea.

Gora Andra Mariak!



BATZORDEA

Arteako Udalak eta Jai Batzordeak

JAI ZORIONTSUAK

OPA DEUTSUEZ

IGORRE

Igorreko Industrialdeako partzelen jaubeen alkartea bultzatu gura dabe Udalak eta Errotak

Erredakzioa

Igorreko Udalak eta Errota Fundazioak Igorreko industrialdearen hobekuntza bultzatzeko

proiektua garatzeko hitzarmena sinatu dabe. Hitzarmen honegaz partzelen jaubeen alkartea bultzatu gura dabe, industrialdearen hobekuntza plana egiteko.



Igorreko industrialdea.

"Proiektu hau Bizkaiko Foru Aldundiaren dekretu baten oinarrituta dago. Dekretuak industrialdeako partzelen jaubeen arteko alkartea sortzea sustatu gura dau, industrialdearen hobekuntza plana garatzeko eta diru laguntzak jaso ahal izateko. Enpresariaren alkartean, jaubeen %50a baino gehiago egotea eskatzen da eta sustapen lan hori Bizkaiko Foru Aldundiak kontratutako aholkularitza baten bitartez egingo da Igorreko Udalaren eta Errota Fundazioaren laguntzeagaz" azaldu deutso BEGITUri Iratxe Goikoetxea Errota Fundazioak.

Ekimen hau, Bizkaiko 4 industrigunetan bakarrik garatuko da, horreetako bat Igorrekoa. Industriadunaren kudeaketari alkartutako jaube-alkarteak egindako gastuak diruz lagunduko dira. Lau motatakoak dira gastuak: industriadunaren lege, urigintza, ingurumen eta abarretako egoeren gaineko azterlana idaztea; industriadunaren kudeaketa-plana egin eta ezartzea; industriaduna hobetu eta egokitzeko jarduketaren plan bat egitea. Baita erakunde eskatzaileak kontratutako langileen gastuak be, industriaduna kudeatu, zaindu eta hobetzera bideratutako jardueretan funtzio teknikoak egiten baditue.

ARRATIA

Arratia eta Ibaizabal ertzetatik martxea, Mobikortasun Iraunkorraren astean

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak Arratiako Ibaizabatetik IX. Martxa antolatu dau urri lehenengoaren 16rako. Martxa honegaz, Europako Mobikortasun Iraunkorraren astea ospatu gura dau, oinezkoentzako ibilbideak berreskuratuz. Partaideak Zeanuriko plazatik urtengo dira 08:45ean eta Bediaraino joango dira Arratia eta

Ibaizabal erreken ertzetatik. Igaz 100 lagun inguruk hartu eben parte, AUMen datuen arabera.

Bediatik hasi eta herriz herri Zeanurira joateko autobusa egongo da 08:00retan. Dimatik be pasauko da. Martxea amaitutakoan kopautxoia egongo da partaideentzat eta 14:00etan, herrira bueltetako autobusa Bediatik Zeanurira.


Martxan parte hartzeako ez da izenik emon behar eta doban da.



Argazkia: AUM.

AREATZA

Astondoa Pirotekniaren Su Dantzak ipini eutsen amaiera Bilboko Aste Nagusiko su artifizialekin



Erredakzioa

Suaren jantzea eta musika batzuan dauzan ikuskizuna ikusteko 10.000 lagun inguru batu ziran datu ofizialen arabera. Ikuskizunak itsasadarra hartu eban ardatz. Soinu ekipo berezi batez eta ur gaineko hiru plataformagaz eskaini eban Areatzako Astondoa Pirotekniak bere ikuskizuna, Bilboko 40. Aste Nagusiari agur esateko abuztuaren 25eko gauean.

Su erakustaldi hau, Areatzako enpresek diseinatu eban eta Bilboko jaietako jarduerarik jentetsuenetako bat izan zan.

Epaimahaiaren saria Italiara joan zan

Aste Nagusiko Su Artifizialekin aurtengo edizinoan saria Italiako Poleggi Pirotekniarentzat izan zan. Astondoa Pirotekniako izas-kun Astondoak jaso eban saria Poleggiaren izenean eta italiarrak saria eskertzen dabela eta barriro be bueltetea espero dabela esan eban.

DIMA



Saharako umeak Diman.

Argazkia: Dimako herria.

Saharako umeak Dimara bisitea egin dabe

Erredakzioa

Urtero legez, Tinduf-eko kanpamentuetan jaio eta bizi diran hainbat ume saharai etorri dira Euskal Herrira. Larrabetzun egon diranak Dimara hurreratu ziran egun pasa abuztuaren 14an, Ekin enpresek eta Dimako Udalak konbidautu.

Goizean Otxandioko igerilekuan egon ziran umeak, Dimako eskolan bazkaldu eben eta ondoren, Dimesten-ek antolatutako jolasak egiten pasau eben arrastia. Oso gustura joan zirala Udalak egindako opariagaz dino Ibon Iza zinegotziak.

JOSKINTZA TAILER SOLIDARIOA
EDOZEIN MOTATAKO KONPONKETAK EGITEN DIRA
 -Praka edo gona barrenak, kremailerak, mangak...
 -Etxeko erropak
 -Neurnak egokitzea
KOLABORAU EIZU
 Tel.: Marta 631 497 890 - Encarni 646 034 419
 Herriko Plaza 20 - Artea

LEMOA

Ibaizabalen zebra muskuilua dagoala eta neurriak hartu ditue

Lemoako jaietako baltsen jeitsierea ezin izan da egin aurten, zebra muskuilua dagoalako Lemoan Ibaizabalgo uretan. Espezie inbaditzailea da eta gehiago zabaldu ez daiten plan bat dauka indarrean Uraren Euskal Agentziak (URA) 2018tik 2020ra.


Erredakzioa

Urtero lez, Lemoako jaietako egitarauan baltsen jeitsierea egoan programauta aurten be. Baina egun batzuk lehenago ekatx batek zugatz batzuk bota eban errekarara. "Errekara zeozer jausten danean guk ezin dogu garbitu. URAk egin behar dau hori. Eta abisua emokeran esan euskuen ezin zala balsarik sartu errekarara zebra muskuilu plagea dagoalako" azaldu deutso BEGITUri Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak.

Zebra muskuiluaren zabaltzea

Zebra muskuilua (*Dreissena polymorpha*) ur kontinentaletan agertzen dan espezie inbaditzailea da. Itsaso Baltzean eta Kaspiar Itsasoan sortu eta Europan zehar zabaldu zan XIX. eta XX. mendeetan zehar. Espainian 2001ean aurkitu zan Ebro ibaiaren behealdean. Hortik aurrera bere hedadura gunea zabaltzen jarraitu dau, eta ondorioz populazioak aurkitu dira ondorengo ibaietan: Ebro, Jucar, Segura, Guadalquivir eta Ibaizabal.

Arratia errekan, 2011ko garagarriean, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailak izokinen familiako arrainen arrantzea eta karramarroak harrapatzea galarazo eban zebra muskuiluaren larbak topau ebazalako. Larbak topau eta gitxira Espainiako Ingurumen Ministerioak jakinarazo eban zebra muskuilu



Ibaizabal errekea Lemoan.

helduak be topau ebezala Undurragako aintziran, Kantauriko isurialdean lehenengoz.

2012an, Arratia eta Ibaizabal ibaietan zebra muskuiluak topau ebezan.

Aurtengo garagarriean, Lemoan be plagea dagoala jakin arazo dau URAk eta abisua emon eban errekan balsarik ezin dala sartu esanez.

Espezie inbaditzaile honek, lekuko fauna kaltetu eta ur hodiak zarratu egiten ditu, beste kalte batzuen artean.

Zebra muskuilua kontrolatuko ahaleginak

2006 urtean EAEn zebra muskuilua kontrolatuko segimentua eta koordinazioa gauzatzeko batzordea eratu zan, espezie honen kudeaketan, edo honen eragina sufridu leikien erakundeak osatua. Uraren Euskal Agentziak, Batzordean parte hartzean daben beste erakundeak batera, "Euskal Autonomia Erkidegoan Zebra-muskuilua Kontrolatzeko Erakundearen arteko 2018-2020 Ekintza Plana" prestatu dau. Agiri horretan zehazten dira hurrengo urteetan erakunde bakoak bultzatuko dituan ekintzak espezie inbaditzaile honen kalteak murrizteko. Agirian be aurkezten da espezieak azken urteetan EAEn izan dauan bilakaeraren laburpena eta birpasau egiten dira oin arte hartutako neurriak.

ARRATIA

Izena emon daiteke udalak ikasturte barrirako antolatutako ikastaroetan

Erredakzioa

Hastear dagoan 2018-2019 ikasturterako, ikastaro eta tailer eskaintza zabala egin dabe Arratiako udalak. Hona, Bedia, Dima eta Lemoakoak dakarguz. Guztira, ia 30 aukera, gauza barriak ikasi edo jakintza hobetuteko.

Bedia

Urri lehenengoaren 5etik 21era, Bedian errolatutakoak eta 24tik aurrera Bedian ez dagozanak errolatuta, 16:30etik 19:30era, Liburutegian emon daikie izena Udalak eraturako ikastaroak egiteko. *Egurrira lantzen, Pilates, Yoga, Zumba, Korru dantzak, Umeentzako euskal dantzak, Soinketa hipopresiboa, Ingelesa: mintza praktika umeentzat, Euskera* ikastaroak, *Eskulanak, Gimnasia erritmikoa*, Taldean ibilteko aukerea, *Adimen emozionala* eta *Esku pelota eta Pala* ikastaroak osotuten dabe 2018-2019ko

eskaintzea. *Adimen emozionala* ikastaroa zemendira artekoa da eta beste guztiak ikasturte osokoak.

Prezioai jagokienean, Taldean ibilteko aukerea doban da. Beste ikastaroen prezioa 50 eta 100 euro artean dago Bedian errolatuentzat eta 100 eta 200 artean Bedian erroladuta ez dagozanentzat.

Dima

Urri lehenengotik abendura arteko ikastaroak hasiko dira egunotan Diman. *Yogak, Eskulanak, Pilates-ek, Taxi kung-ak, Entrenamentu funtzionalak, Gimnasia hipopresiboa* eta *Zumbak* osotuten dabe Udalaren eskaintzea.

Taldeak aurrera eroateko gixienez 8 persona apuntatu behar dira eta gehienez 12. Leku kopurua baino persona gehiagok emoten badabe izena, zozketea egingo da eskatzaile guztien artean. Prezioak, 70 eta 100 euro bitartean dagoz Diman errola-

tuentzat eta 90 eta 140 bitartean ez errolatuentzat.

Lemoa

Urri lehenengoaren 5etik 12ra emon daiteke izena udaletxeko Kultura Zerbitzuan, *Eskulanak, Informatika, Sukaldaritza sortzailea, Artisau jantzigintza eta jantzigintza sortzailea* eta *Irudiaren hobekuntza eta ukitu digitala* ikastaroetan parte hartzeako. Lehenengo biak ikasturte osorako dira, hau da bagilera artekoak. Beste hirurak barriz, lehenengo hiru hilekoa hartuko dabe.

Euskereari jagokonean, Euskara eskolak eta mintza taldeetan izena hilaren 25era arte emon daiteke. Berbalagunen parte hartzeako, barriz, ikasturte osoan emon daiteke izena.

Ikasturtearen atzen hiru hilekoan, apiletik bagilera, *Barreterapia* eta *Loreontzi-barazkigintza* eta *Lorezaintza* ikastaroak egongo dira.

LEMOA

Lemoak lehenengo skate parkea egin dau Ibaizabal ibaiaren ondoan

Erredakzioa

Aurrekontu parte hartzaileetan egindako eskakizun bat izan zan. Lanak hile bi irauan dabez. Ibaizabal ibaiaren ondoko parkean dago eta gazteen aisialdirako edo-eta aire zabalean kirola egiteko aukerea eskaintzen dau skate parkeak.

Skate parkea egiteko proiektua, aurrekontu parte hartzaileetako atzenengo fasean; hau da, bozketan, urten zan garaile. Herriko lehenengo skate parkea da: Proiektuaren kostua 4.000 eurokoa izan da. "Proiektuak aurkezteko epea egon zan eta 40.000 euroko topea egoan. Aurkeztutako proiektuak urbanistikoki, juridikoki eta ekonomikoki aztertu ziran eta egin ahal ziranak hurrengo fasera pasau ziran. Pasatutakoak herriari aurkeztu geuntsazan eta bozketea egin zan. Irabazlea skate parkea izan zan" azaldu deutso BEGITUri Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak.

UBIDE

Irantzu Lekueren zuzendaritzapean hormairudia pintetan dabiz Ubideko sarreran



Erredakzioa

Irantzu Lekue artista muralgilea hormairudia egiten dabil ubidezarrakaz, modu parte hartzailean, herri sarrerako udal eraikin baten. Hormairudiak Ubideren historia eta ezaugarriak emon gura ditu ezetuten. Edade guztietako 30 lagun baino gehiagok hartzean dabe parte ekimen honetan.

Irantzu Lekue

Artea eta aktibismoa lotzean dauzan

artista gasteiztarrak denporaldi bat emon dau Ubiden biziten eta sortzen. Aita ubideztarra izanda, askotan etorten da Ubidera lasaitasun bila.

Irantzu Lekuek, "artibismoa" landuten dau, artea eta aktibismoa buztartuz. Parte hartzea eta hezkuntza sustatu eta bidebakiak salatuten ditu arte lanen bitartez. Bere lan ezagunen artean, *6.000 zapata* Gasteizen egindako instalazio artistikoa edo Donostiako *10.000 joan etorrian* dagoz.

ZAHARTZEAREN GAINEKO XIV. MUNDU MAILAKO BILTZARRA TORONTON

Itsaso Bengoetxea arduratu zan Bizi Igorre Toronton aurkezteaz

Itsaso Bengoetxea, Bizi Batzordeko kideak, edadeko jentearentzat herri txikien garrantzia nabarmendu eban.



Itsaso Bengoetxea Ryerson Unibersidadeko aurkezpenean.

Erredakzioa

"Aukera hau aprobezatu gura dogu holango osasun eta gizarte proiektuetan herri txikiak daukien garrantzia azpimarratzeko. Herri txiki baten bizi izateak edadeko jentea eta beste personeren arteko hartu-emonak sendotuta errazten dau; Administrazioa eta herritarren arteko sinergiak hobetuten dauz, (esate baterako, zuzeneko proiektuak eskola, mediku edo beste jentearagaz). Baliabide ezak, katalizatzaile moduan funtzionetan dau edadeko jentearentzat, eta parte hartze aktiboagaz, proiektua euren dala sentiduz, irudimen handiagokoak eta dinamikoagoak izan daitezke". Holan aurkeztu eban Itsaso Bengoetxeak Bizi Igorren proiektua abuztuaren 8an Toronton, 14. Zahartzearen gaineko Biltzar Nagusian. Ondoren, bideo baten bitartez azaldu eban protagonistak herrian egindakoa.

Igorrekoen aurkezpena laugarrena izan zan Herri Lagunkoien proiektua zelan ipini daben martxan, zelan ebaluatu eta zelan hobetu daben azalduten. Aurretik, Taiwan, Ontario eta Txinako Guangzhou herrietako ordezkariak hartu eban berbea euren

egoera azalduteko. Komunitate handiak dira danak eta arazo desbardinai egin behar deutsee aurre.

Berbaldiaren bezperan, abuztuaren 7an, Itsaso Bengoetxea, Felipe Bernaola eta Jabi Zuluaga, Bizi Igorreko ordezkariak, Toronton batu ziran alkarregaz afaldu eta hurrengo eguneko berbaldiaren inguruak komentetako. Erantzukizuna handia izan arren, ilusinoa zan nagusi. "Pozik gagoz egin dogunagaz eta lan horretan segiduteko gogo handiagaz" inoan Bernaolak.

Baina, Igorre aukeratua izan zanean mundu mailako kongresu baten herrian egindako lanaren barri emoteko, Administrazioaren erantzuna ez zala izan espero ebena dino Bengoetxeak. "Hainbat oztopo eta atzerapen izan dogu finantziazinorako laguntzai lotutako administrazinotik jaso behar genduzan erantzuntan. Eta jaso doguzan emaitza gehienak negatiboak izan dira".

Hurrengo egunean, bideo batez lagunduta, Bizi Igorre proiektuaren barri emon eban Bengoetxeak Ryerson Unibersidadean. Igorreko aurkezpena edadeko jentearentzat herri txikiak daukien bentajetan oinarritu zan. Alde batetik,

partaideen arteko ezagutza eta konfiantza eta bestetik, behetik gorako proiektuak eta erakundeakazko hartu-emon zuzena eta alkarlana errazten dauz. Nagusiak eta beste edadetako jentearagaz egindako alkarlana be argi geratu zan aurkezpeneko bideoan.

Euskerearen presentzia Toronton

Bizi Igorre proiektuaren barri emoten dauan bideoa euskeraz dago, ingelesezko azpitoluakaz. Arantzazuko Balea Musika Ideiak egin dau Toronton erakusteko. Lehenengotik Igorreko alkatea agertuten da noztik dagoan Igorre Herri Lagunkoien sarean sartuta esaten; gero, Jesus Mari Anzolak, jubiladuen alkarteko Idazkari Nagusia izandakoak dino Bizkaiko Nagusiak plataforman izan ebela lehenengoz Herri Lagunkoien barri eta ekarri ebela Igorreran. Eider Aldape Marakako teknikariak ikerketea, eta diagnostiko faseak azaltzen ditu.

Diagnostiko fase horretatik urtendako proiektuak be agertzen dira bideoan.

Izan be, Bizi Igorrek daukan berezitasunetako bat horixe da, ez dala diagnostikoan geratu, proiektuak martxan ipini dirala, gauzatu

egin dirala. Batzuk aitatzearren, Gure bihotza zure esku, Udalak ipini ebana martxan; Igorbili, ibilaldiak egiteko edo belaunaldien arteko bideoforumak dagoz.

Proiektuko protagonista nagusiak, herriko 60 urtetik gorakoak be agertzen dira bideoan, ekin-tzetan parte hartzean batez be. Danak ez, ze Igorren, %20 inguru dira edade horretatik gorakoak, mila bat lagun.

Immersoko Zuzendari Orokorren andren egoeraren barri emon eban

Egun bi beranduago, Carmen Orte Socias Immersoko Zuzendari Nagusiak, Espainiako edadeko andren egoeraren gaineko berbaldia egin eban Biltzarrean, eta egoera honek planteetan dituan hartu beharreko erronkak azaldu ebazan.

"Momentu honetan inportanteena andrak ikusgarri egin eta euren oinarritzko beharizanak betetea da: dirua, sare soziala...". Horretarako, andren pensinoak hobetzea eta gizonen pensinoak daukien aldea murriztea beharrezkotzat jo eban. Izan be, bizitza osoan zehar bizi izandako genero diskriminazioak ondorioak ditu zahartzaroan, eta, Orteren arabera, "pobrezia, dependentzia, bakardadea, ekonomia prekarioa eta genero indarkeria, kontuan hartu behar dira politikak diseinatzerakoan".

Saio honetan, Immersokoaren aurretik, euren herrialdeetako andra nagusien egoera ikustarazo eban Sri Lanka eta Kanadako lau ikerlarik. Publikoan, Immersoko zuzendariari entzuten, Bizi Igorre proiektuko kide diran Felipe Bernaola eta Jabi Zuluaga egon ziran.



Igorreko Bizi Batzordekoak Biltzarrean.



Biltzarra Chelsea Hotelean eta Ryerson Unibersidadean izan zan.

Baita, Cristina Bosch Gironakoa. Ikerlari honek zahartze aktibo eta osasuntsua neurtzeko metodoen gaineko berbaldia emon eban abuztuaren 9an.

**Mundu zabaleko esperien-
tziak**

International Federation on Ageing, IFAk Toronton antolatutako abuztuaren 7tik 10era izandako Biltzar Nagusian, 76 herrialdeko ordezkariak hartu eben parte. IFA Federazioak Osasunaren Mundu Erakundearentzat (OME) egiten dau behar. Biltzarrean, gaur egungo eta etorkizuneko edadeko jentearen erronken inguruko gaiak landu ziran. "Ikuspegiak, ikerketak eta munduko errealidadearen adibideak ipiniko deuse markoa edadeko jentea ez bakarrik osasuntsu mantentzeko, baita gizartean parte hartzeako egokienak diran politiken gaineko eztabaidai" adierazo eban IFAk aurkezpenean.

Lehenengo egunean, edadismoak prebalentzia handia daukala Europan esan eban Alana Officer-ek, OMEren Zahartzerako koordinatzaileak edadismoaren gaineko berbaldi-tailerrean. OMEren definizioaren arabera, edadismoa "edadeagaitik, este-reotipatzea, aurreretxiak izatea eta baztertea da". Officer-en esanetan, edadismoa maila bitan gertatzen da: banakako edo pertsonen arteko mailan, eta erakunde edo kultura mailan. Muturreko kasuetan, indarkeria erabileraino helduten da. Adituaren arabera, gizonak andrazkoak baino edadistagoak dira, eta Europan, edadismoak, sexismoak edo errazismoak baino prebalentzia handiagoa dauka, baina gizartea "itsu" dago arazoaren aurrean.

Etxea, bizitza duina egiteko diru sarrera nahikoa eta bakardadeari aurre egiteko nor eukitea dira edadekoen kezka nagusiak munduko herrialde guztietan. Baita errespetuz eta duintasunez tratatuak izatea be, euren dibersidade guztian.

Diagnostikotik ekintzara

Aurkezpen batzuen helburua proiektuak zelan ipini dabezan martxan eta zelan ebaluau diran azaltzea bazan be, gehienetan teoriarik geratzen zirala uste dabe lgorrekoak. "Proiektuen artean desbardintasun bat ikusi dot. Gurea gauzatu egin da, errealitatea erakutsi dogu, eta besteak joan dira teknikari moduan azalduten zer egin behar dan" azaldu eutsan BEGITURI Jabi Zuluagak Biltzarrean. "Hemen badago jente nagusia baina gehiago egon beharko litzateke. Atzen finean eurak dira esan behar dabenak zelan egin behar dan euren bizimoduak hobetuteko" gehitu eban Bengoetxeak.



ARRATIAKO IBAIERTZETATIK IX. MARTXA ZEANURI - BEDIA

IRAILAK 16, domeka

LUZEERA: 20 Km inguru
IRAUPENA: 4 ordu
ZAILTASUNA: Erreza

URTEERA: Zeanuriko plazatik
8:45etan

- Zeanurira joateko autobusa egongo da
- 8:00etan Bediatik herriz-herri Zeanurira (Dimatik ere)
- Amaitzean, luntxa eta ostean (14:00etan) Bediatik herriz-herri buelta Zeanurira

Arratiako Udalen
Mankomunitateak antolatuta



Europako
Mugikortasun
Iraunkoarraren
Astea
2018



Informazio gehiago 665 725 410 telefonoan
Ez da apuntatu behar

PELOTEA



Ziarrusta anaiak Europako Txapelketako partidu baten.

Dimako Ziarrusta anaiak sano txapelketa ona egin eben European laugarren egin arren

Abuztuaren 2tik 4ra, Holandan jokatutako Europako Pelota Txapelketan hartu eban parte Euskal Selekzinoak.

Erredakzioa

Guztira 11 pelotari eta hautatzaile bat joan ziran Euskal Herria ordezkatzeko. Tartean, hiru arratier: Ekhi eta Lur Ziarrusta pelotari

dimoztarrak eta Lemoako Aitor Erauzkin, hautatzailea.

Hiru modalidadetan jokatu eben, gurea ez dan jokamoldeetan, baina emaitzak onak izan ziran. Wall Ball modalidatean,

brontzeko domina lortu eben andrazkoak. Gizonezkoetan Ekhi eta Lur Ziarrustak ordezkatu eben Euskal Herria eta 4. egin eben, Valentziaren kontra sano partidu estu baten galdu eta gero. "Esan beharra dago sekulako txapelketa egin ebela". Izan be, "gitxi-gaitik" ez eben lortu podiumera igotea.

Beste modalidadeak

Joko Internazionala eta Llargues modalidateetan be hartu eban parte Euskal Selekzinoak. Joko Internazionalan be 4. egin eban finalerdia Holandaren kontra, txapeladunen kontra, galdu ostean. Llargues modalidatean 5. egin eben.

Aitor Erauzkin Selekzinoko hautatzaileak balorazioa ona egiten dau. "Aurka-aurka jokamolde zuzenetan (Joko Internazionala eta Llargues) maila irabazten gabiz, eta jokamolde ez zuzenean (Wall Ball) irabazteko gai garala erakutsi dogu. Barriro be gure Euskal Selekzinoak nazinoarteko txapelketa baten modu ofizialean parte hartu dau eta hau goraiatzekoa da. Nahiz eta gure jokamolde propioak ez diran jokamoldeetan jokatu, honeetan ezin dogulako modu ofizialean parte hartu, pelotako jokamoldeak dira, eta ikusi da modalidate honeetan be maila altua emon daikegula" dino Euskal Selekzinoko hautatzaileak.

BOLA JOKOA

Alberto Zuluaga nagusi Zeanuriko Bola Txapelketan

Jon Urutxurtu

Alberto Zuluaga otzerimenditarak eskuratu dau 2018ko Zeanuriko Bola Txapelketea. Finala San Lontzon jokatu zan, abuztuaren 11n, San Lontzo bigarrenean, eta bertan urtean zehar auzuneetan jokatu diran hiru txapelketetako lehen lau sailkatuak hartu eben parte: guztira hamabi bolarik. Txapelketok Altzuan, San Juston eta San Lontzon bertan jokatu ziran. Zuluagak lauko jaurtiketa bategaz lortu eban txapela. Bigarren eta

hirugarren tokietan Inazio Goioaga undurragatarra eta Juantxo Ozerinjuregi altzuarra sailkatu ziran.

Zeanuriko bolarien hurrengo zitea Altzuan izango da urri lehenengoaren 29an edo 30ean, ondino eguna zehaztu barik dago, San Migel jaietako egitarauaren barruan. Kofradien Arteko Taldekako Txapelketea jokatuko da eta herria osatzen daben zazpi kofradietako ordezkariak hartuko dabe parte, talde bakotxa lau bolarik osotuta.



Lauko jaurtiketa bategaz irabazi eban txapelketea Alberto Zuluagak.

FUTBOLA

Areatzako Athletic-eko Peñak urteroko Gorbeiarako igoerea antolatu dau hilaren 8rako

Erredakzioa

Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñak Gorbeiarako igoerea eta hildako bazkideai omenaldia antolatu dau urri lehenengoaren 8rako. Aurtengoa 23. edizioa da eta parte hartu gura dabenak goizeko 09:00etan batuko dira

Areatzako frontoian.

Kurutzean hamaiketako egin eta hamabiak aldera argazkia aterako dabe. Hildako bazkideai omenaldia 14:30ean egingo deutsee Pagomakurren. Gero, sagardotegi erako bazkaria egongo da Trikitotx catering enpresaren eskutik Pagomakurren bertan eguraldi ona egin

ezkero, bestela frontoian izango da.

Izena urri lehenengoaren 3ra arte emon ahal da Areatzako Motxo tabernan edo Zuzendaritza Batzordeko kideakaz hartu-emo-netan ipinita.



Graduazioak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gibusua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptica@hotmail.es

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

INMOBILIARIA

Tfnoa: 94 631 80 04

ANDRA MARI KLINIKA
Pontzi Zabala, 1
48960 Galdakao
94 457 23 64
galdakao@bizkaifisios.com

FUTBOLA

Arratia Futbol Eskolearen aurkezpena hilaren 13an izango da

Erredakzinoa

Hilaren lehenengo egunetan emongo deusie hasikerea ikasturteari Arratia Futbol Taldean. Urri lehenengoaren 13an, 17:30ean, egingo dabe futbol eskolearen aurkezpena eta ikasleen datuak jasoko ditue. Eskolak hilaren 18an hasiko dira.

Maila desbardineta Arratia Futbol taldeak, barriz, lehenago hasiko dira entrenetan. Kadete, Infantil eta Jubenil mailako mutilak izango dira lehenengoak. Honeek hilaren 3an hasiko dira. Hurrengo egunean, Alebin mutilen txandea izango da eta hilaren 5ean, Kadete neskak hasiko dira euren entrenamentuak egiten. Gaiantzekoak, urri lehenengoaren 10 edo 11n izango dabe 2018-2019 denporaldiko lehenengo eguna.

Lehenengo taldeak

Arratia Futbol Taldeko andrazkoen lehenengo ekipoak Euskal Ligan jokatu dau oingo denporaldian; lehenengo partidua hilaren 8an izango dau. Gizonezkoen lehen taldekoak barriz, Bizkaiko Lurraldekoa Ohorezko Mailan jokatu dabe; hilaren 22an, aurrenekoa.

AZKOREA

Aitzol Atutxak Aizkolarien Urrezko Kopa irabazi dau



Aitzol Atutxa.

Erredakzinoa

Atutxa II.ak Donostiako Aste Nagusian jokaturako Urrezko Kopa irabazi eban abuztuaren 15ean. Dimoztarrak Donostian lortutako laugarrena izan da hau.

Euskal Herriko bost aizkolari onenak neurtu ziran Trinitade plazan eta denporarik laburrenean Atutxak ebagi ebazan enborrak: 31 minutu eta 52 segundo. Bigarrena, Iker Vicente izan zan (33 minutu 10 segundo), eta hirugarrena Mikel Larrañaga 35 minutu eta 46 segundoko den-

poreagaz. Iñaki Azurmendi izan zan laugarrena eta Joseba Otategik bosgarren egin eban.

Latasia saria

Lau egun lehenago, abuztuaren 11n, Latasia saria irabazi eban Sunbillan. Atutxa eta Julen Alberdik osotutako bikoa nagusitu zan hamar kanaerdiko eta sei 60 ontzako enbor 28 minutu eta 42 segundotan moztu ondoren. Bigarrenak, Larrañaga eta Muger-tza gipuzkoarrak izan ziran. Iker Vicente eta Donato Larretxeak hirugarren egin eban.

AZKOREA

Metro bi eta 18 zentimetroko enborra ebagi eben Irati Astondoak eta Alatzne Etxaburuak



Alatzne Etxaburu eta Irati Astondoak.

Erredakzinoa

Azkora erakustaldia egin eben Irati Astondoak eta Alatzne Etxaburuak abuztuaren 23an Bilbon, Aste Nagusiko herri kirolen programazioaren barruan. Erroakea metro bi eta 18 zentimetroko enborra ebagitea izan zan. Bien artean, 22 minutu eta 18 segundotan egin eben beharra.

Neurri berezi hori 2018 urtea dalako aukeratu ebela esan eban

aurkezleak eta inoz ez zanez egin, denpora erreferentzia barik egin eben lana azkolaria biak. Lana amaitutakoan emozioa agertu ziran biak eta denpora aldetik erreferentziarik euki ez arren, pozik eta sensazio onak amaitu ebela esan eutsan zeanurizarrak begituri. Esfortzuaren ostean, lana amaituta, trontzan be egin eban bikoteak; herri kirolak ikusten hurreratu ziran guztiai kirolari osoak dirala erakutsiz.

ZURE ZERBITZURA

- ✓ Avia guztira 176 gasolindegil
- ✓ Avia Adenor 35 gasolindegil

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

GURE BIHOTZA

- ✓ Operazio-Zentroa Bilboko Portu Autonomoan

AVIA

Dirabizko Urri lehenengoaren

Gure ikastetxeak

Euskalduna kalidadezkoa herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

ARKEOLOGIA

Auzolanagaz amaitu dabe aurten Lemoatxen arkeologoen beharra

1937ko batailearen lekuko dira Lemoatxen errekerautako lubakiak, sei gudariren hazurrak, botak, kartutxerak, antibiotiko poteak, metraila edota obus eta granada zatiak. Horreek eta euren kokalekuak datu bihurtuten dabiz Aranzadiko arkeologo eta historialariak, bertan gertatutakoaren kontakizuna egiteko.

Erredakzioa

Aurten, Auzolandegiak aurreko urteetan egindakoa txukundu dabe eta talde espezializatu baten eremu barri bat zabaldu dau. Herritarren auzolanagaz amaitu dabe aurtengo beharra.

Mikel Garcia Lemoako Gizartegintza Teknikariaren arabera, ia kilometro batera helduko da oin arte errekeratu diran lekuak eta horreek erakusteko "neguan PR bat egingo da, Mendiko Federazioagaz eta Ganzabal Mendi Taldeagaz batera, guda zibilaren historia, Lemoatxen gertatutakoa kontetako". PR (*Petite Randonnée*, ibilbide laburra) horren ibilbidea ez dago guztiz zehaztuta, horretarako jakin behar dalako nondik egingo diran indusketak. Hori gaxa da jakitea, indusketa eremua topautako materialaren arabera ebazten daualako Aranzadik. Hau da, aurkikuntzak egindako kontakizunak markauko dau nondik segidu edo non egin mantenimendu lanak.

Auzolandegietara etorritako mundu zabaleko gazteak lehenengo errekeratu ebezan luba-

kiak barriztu egin dabez aurten. "Zakuak apurtu egiten dira, lurra mobidu egiten da eta aurtengo Auzolandegiak egin dabe berreskurapen lan hori" dino Garciak. Hori dala eta, aurten ez dabe material askorik topau.

Urtero lez, talde bi egon dira. Bata garagarriaren bigarren hamabostaldian eta bestea abuztuko lehenengo egunetan. Talde aldaketa eguna Lemoako jaietan izan zan eta talde biak euki eben aukerea herriko jaietan parte hartzeako. Auzolandegietan lubakiak errekeratzen lan egiten daben gazteak mundu zabaleko unibersidadeetatik datoz eta Euskal Herria apur bat ezetuteko aukerea izaten dabe arrastietan.

Hirugarren talde bat be ibili da lanean aurten. Aranzadikoak, Arkeologia, Historia eta Ondasun Kulturalako Mantenimenduko ikasleak batera, lan espezializatuago egiten jardun dabe abuztuaren 13tik 22ra eremu barri baten. "Igaz hemen ibili ginar behar eta ikusi genduan fronte bat egoala. Sasoi haretako krokisean, lubakietatik T formea daukien fronteak ateraten dirala

ikusi genduan eta sasiak kentzean ikusi dogu uste baino luzeagoa dala. Ez dakigu beste defentsa "garriko" bat egin eben ala moztu egingo ete dan" azaldu deutso BEGITURI Alba Peña Aranzadiko arkeologoak. Hemen material gutxiago topau dabe "horrek esan gura dau hemen ez zala bataila gogorrik egon. Soldaduak babes-teko atzera joaten ziran eta".

Saioa Elejabarrieta Lemoako alkatearen arabera, "horreek egiten daben lana sakonagoa da eta hor aztertuten dira hobeto lurraren kapak eta historian zehar gertatutakoa".

Ate irekiak eta auzolana

Abuztuaren 18an, ate irekien jardunaldia antolatu eben Udalak eta Aranzadik eta hurreratutakoak Lemoatxen historia eta aurreko kanpainetan topautakoaren barri jakin eben. Arkeologoak behar-ean ikusteko aukerea be izan eben.

Arkeologoen lana amaituteko auzolana egon zan hilaren 23an. Erantzuna ona izan zala dino Lemoako alkateak eta modu honetan egiteko aurreikusita egoan lan



guztia amaitu zala.

Laugarren aldia da auzolanaren bitartez lan bat egiten dana Lemoatxen. "Lehenengo urtean etorri zan jente gutxi 22-23 lagun. Azkenengo, oin dala bi edo 3 urte izan zan eta orduan 45 edo etorri ziran. Ez herrikoak bakarrik, kanpokoak be bai" azaldu deutso BEGITURI Mikel Garciak.

Historia aldetik leku aberatsa Lemoako memoria historikoa

errekeretako alkateak eta Lemoako Udalak lubakiak errekeratzen hasi ziranean, ez eben pentsetan lanak holango tamaina hartuko ebanik. Lehenengo urtean 20 metrogaz hasi zirala ekarri dau gogora Garciak. Oin Aranzadik eskatuten dau etortea "Euskal Herri mailan eta Estadu mailan material aldetik eta historikoki leku aberatsenetakoa" dalako 1936ko gerran gertatutakoa jakiteko.

ANTZERKIA

Karpa azpiko antzerkia Diman Nicole & Martin konpainiaren eskutik

Hilaren 20tik 23ra, Grimm anaien ipuinetan oinarritutako lau antzezlan eskainiko ditu Nicole & Martin antzerki konpainiak Diman.

Erredakzioa

Lehenengo biak eskolaumeentzat ingelesez eta beste biak publiko orokorarentzat gaztelaniaz.

Urri lehenengoaren 17an helduko da Dimara Nicole Gubler Scharnz eta Martin Gluberren konpainia. Herriko jenteak lagun-

duta, karpa zuria montauko dabe Dimako eskola eta frontoiaren arteko zelaian. Emonaldiak, egunean, hilak 20, hasiko dira. Egun horretan, eskolaumeak *Hansel eta Gretel* ingelesez ikusteko aukerea izango dabe goizeko 11:00etan, eta hurrengo egunean, *Juan Burdinezkoa*. Publiko orokorrari zuzen-

dutako lehen lana, *Eskurik ez zuen neskamea* izango da, gaztelaniaz. Zapatuan izango da, hilak 22, arrastiko 19:00etan eta sarrerak euren webgunean erreserbau eta takilan hartu ahal izango dira. Domekan, 12:30ean izango da emonkizuna, *Arrantzalea eta emaztea* antzez-tuko dabe orduan.

Domeka arrastian karpea demontetan hasiko dira hurrengo astelehenean Granadarantza joateko. Izan be, konpainia honetakoak karabanetan bizi dira eta "urtean zortzi hilabetez European zehar ibiltzen gara antzerkiagaz" dinoe euren webgunean.

Ikasle Euskaldun Eleanitzak Proiektuaren barruan

Konpainia Dimara etortek Dimako eskoleak Udalgaz alkarlanean antolatu dau. Diman Ikasle Euskaldun Eleanitzak Proiektuan dabilz lanean eta Ikastetxeko Hiz-



kuntza Proiektua osatu eben joan dan ikasturtean. "Horren ildotik, aukera parebakoa subertau jakun: eleanitzak diran antzezle honeei gure herriko ateak zabaltzea. Emonald bi ingelesez egingo ditue eta

beste bi gazteleraz. Gure erronka hau da: eurak hurrengo baten antzerkiren bat euskeraz egiten animetea. Geure laguntzea gura badabe, eukiko dabe" dino Olaia Gurtubai eskolako zuzendariak.

EDITORIALA

BEGITU, 300. alea Arratia ereiteko

BEGITU aldizkariak 300 zenbakiko alea kaleratu barri dau. Zenbaki biribil horren atzean 300 ahalegin baino gehiago dagoz Arratiako jendartearen zerbitzuan.



Ez dakigu Espartako Leonidasek eta bere hirurehunak Greziako Termopilas haretan egindako moduko balentria egin ete dauan BEGITU aldizkariak. Baina, Arratia, Zeberio eta Ubideko euskera hutsezko nontzebarria 300. alea be egiteraino ailegau barri da. Marka ederra, biribila, 2002tik hasikeran hilero, eta 2008tik hamabostean behin BEGITU plazara ateraten laguntzen dogunontzat. Eta ez bakarrik guretzat, Arratia osoko jendarte guztiarentzat be izan behar da pozgarria. Izan be, jente asko dago aldizkariaren orrialdeen atzean, kazetariak, laguntzaileak, banatzaileak, udalak, enpresak... eta batez be irakurleak. Horrek barik proiektu hau ezinezkoa litzateke. Hori dala eta, gizalegea da BEGITU aldizkaria posible egiten daben guztia eskerrak emo-

tea. Gaur, etorkizunari oratu behar deusn proiektu konsolidaua da BEGITU, bertoko jendartearen errotuta dagoana, Arratiari, Zeberiori eta Ubideri zerbitzua eskaintzen deuse-na. Eta halan izaten jarraitu gura dau datozan hirurehun aleetan be.

Tokiko euskerazko komunikabideen garrantzia

Euskerearen egoera tamalgarrria ikusita, eta jakinda komunikabideak ze indar eta eragin daukien hizkuntzearen normalizazio eta zabalpenean, joan dan mendeko 90eko hamarkadan tokiko komunikabideen (irratia, telebista eta prentsa idatzia) benetako iraultzea bizi izan genduan Euskal Herriko geografia osoan zehar. Asko eta asko euskera alkarteak bultzatuak. BEGITU be holan jaio zan. Hori, duda barik, gertakari garrantzitsua eta deigarria izan da euskal prentsa munduan. Komunikabide batzuen bizitzea gata eta laburra izan da, beste batzuk, ostera, egonkortzea eta profesionalizatzea lortu dabe. Gaur egun, 60 komunikabide osotzen dabe toki komunikabideen federazioa, Tokikom deritxana; eta

250.000 lagun baino gehiagorengana ailegetan dira. Konturatzeko, sare horren hedadura eta garrantzia komunikabide "nagusi" batzuen bano handiagoa da.

Komunikabide horrek guztiak ahalbidetu dabe informazioa euskeraz emon eta jasotea; euskerarako ikusentzuleak zein irakurleak irabazi dabez; eta, azken baten, hizkuntza ohiturak sendotzen lagundu dabe. Euskerearen normalizazioaren ezinbesteko tresna bihurtu dira. BEGITU be egin dau berebiziko ahalegina Arratiako euskeratik edaten dauan bizkaiera idatzia aukeratzeagaz, ahozkotik idatzirako zubia proposatuta.

Baina, hori baino gehiago lortu dabe tokiko komunikabideak. Hurrekoari zerbitzua emoten deusie, tokian tokiko jendarte egin eta kohesionatzen laguntzen dabe, jendartearen beste eragile batzuk batera. Holan, geuk be uste dogu BEGITU Arratia egiten dauala. BEGITU ez baltz, sortu beharko geunke. Eta, beharbada, garrantzitsuena, tokiko komunikabideak geure hurbileko errealidadera hurreratzen gaitue. Aikor euren benetako balioa, sarritan komunikazioa bera

be desitxuratzen eta manipulatzen dauan mundu globalizazioaren aurrean. Horregatik, tokiko komunikabideak egundoko zeregina beteten dabe benetako demokrazia indartzen. Ondotxo dakigu, informazioa ahula dan lekuan ustelkeria eta totalismoa nagusitzen dirala.

Horrek guztiak badauka kosta, handia gainera. Komunikabideak aurrera aterateak, besteak beste, koste ekonomiko altua dakar. Oro har, gurean, tokian tokiko komunikabideak doban emoten dira, horrelaxe banatzen da BEGITU aldizkaria, alaita eta jente gehienengana ailegau daiten. Harpidetzak eta publikidatea ez dira nahikoak, erakunde (udalak, Aldundia eta Jaurlaritza) diru publiko barik ezinezkoa da, argi eta garbi. Horrek medio, erakunde publiko eta jendartearen arteko konpromisoa etenbarik barritu eta estutzen behartzen gaitu. Ez dogu okasino galduko Begitu-lagun gehiago behar doguzala esateko, medioa hobetzeko diru apur bat emongo dauan jente konprometidua, hain zuzen.

BEGITU etorkizunaren bidekurutzan

Konpromisoa aitatu dogu, eta aldizkaria hobetzea da Zertu alkarteak daukan konpromisoa. BEGITU bidekurutzan

dago, prentsa idatzia dagoan bidekurutzan berean. Hau da, komunikazio teknologien garapenak hedabide barriak ekarri dauz; are gehiago, medioak eta komunikazioa beragaz daukagun hartu-emon aldazko dabe, errotik aldazko be. XX. mendean ezetu genduan ha kazetaritza desagertzeko zorian dago, krisiak jota dago. Aho biko ezpataren antza daukan egoera bizi dogu. Teknologia barriak informazioa aton emon eta jasotea ahalbidetzen dabe, edonork edonon egin leike; ez da kazetaririk behar, urrean. Baina jasoten dogun informazioa ez da osoa izaten, laburra da eta ez da kontrastua izaten, lekukotasun hutsa benetako eretxiari gailentzen jako, eta gehienetan irudia da agintzen dauana. Halanda be, berehalakotasunak badauka abantailarik, arin emondako informazioak erantzuna arin be lortzean dauako, eta hori, gure jendartearen, sano garrantzitsu bihurtu da.

Eztabaidea, beraz, hor dago. BEGITU be ezin deustoz eztabaideari izkin egin, aldizkariak etorkizuna eukiko badau. Webgune polita eukitea baino gehiago da. Zertu alkartearen jakitun gagoz BEGITU hurrengo erronea teknologia barriak dakarrezan abantailak baltatzea izango dala. Horretarako ostabere Arratiako jendartearen laguntzea beharko dogu, bere ekarpenak, aholkuak, eretxiak eta kritikak. Kritikak be bai, BEGITU hurrengo aleetan be danona izan daiten. Hala izan beite.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

AGENDEA

URRI LEHENENGOAK 3
AREATZA

Areatzako Mendi Martxan izena online emoteko epea zabalik urri lehenengoaren 20ra arte, www.areatzakomendimartxa.blogspot.com webgunean.

IGORRE

Urri lehenengoaren 6ra arte, Igorreko Jubiladuen Errioxarako txangoan izena emoteko epea jubiladuen lokalean. Txangoa urri lehenengoaren 13an izango da.

ZEBERIO

Jaiak. 12:00etan, Gozatza, egurrezko jolasak ume eta helduentzat; 13:00etan, poteoa Koldo eta Unai trikitilariakaz; 15:00etan, indababak lagun artean; 18:00etan, pailazoak, Pirritx, Porrotx eta Marimotsen *Borobilean* antzezlan; 19:30ean, jaien amaiera.

URRI LEHENENGOAK 5
BEDIA

16:30ean, ikasturte hasikera liburategian eta bebetekan. Urtebetetzeak ospatzeko lokalaren zerbitzua hasiko da; 17:00etan, hasiko da ikasturtea ludotekan.

Hilaren 14ra arte, 16:30etik 19:30era, Heredad de Ugarte bodegara urtekerarako izen emotea Liburutegian. Txangoa hilaren 22an izango da.

Hilaren 22ra arte, 16:30etik 19:30era, udal ikastaroetan izena emoteko epea; 18:00etatik, 19:30era, Umeen Irakurle Klubean izena emoteko epea. Liburutegian.

LEMOA

Hilaren 12ra arte emon daiteke izena udal ikastaroetarako udaletxeko Kultura Zerbitzuan.

ZEANURI

18:00etan, Gorbeia Jubilatu eta Pensionisten alkarteak antolatuta, hidratazioa eta automasajearen gaineko Patxi Marionen berbaldia.

URRI LEHENENGOAK 7
AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta,

Bertsos bazkaria LEMOA

Irailak 8 - Lemoa

13:00 POTEU MUSIKATUA KITTUrekin
Bikandi tabernatik hasita

15:00 BERTSO BAZKARIA
Kulturaguneko plazan

17:15 I. ANDRA MARI FUTBOL TXAPELKETA
Arlonagusian

20:30 POTEU MUSIKATUA TABERNA IBILTARIArekin
Elizondotik

Onintza Enbeita

Uxue Alberdi

Oharria: egunaldi osatu bedia, ezinezko sarrasun izango da bazkaria. Talerria ubidetzen salgai, urreak 8 € / nagusiak 12 € arratsak 16 - jaiak h.

Uxue Alberdi eta Onintza Enbeita
bertsolariak Lemoan

Urri lehenengoaren 8an, Uxue Alberdi eta Onintza Enbeita bertsolariak Elizondoko bertsos bazkarian egongo dira. Hitzordua, 15:00etan da Kulturaguneko plazan.

Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984) bertsolari eta idazle ezaguna da. 2009an Bertsolaritza Txapelketa Nagusian finalaurrekora heldu zuen. Ordurako, hainbat sari jasota eukazan; tartean, bertsolari gazteen Osinalde Saria 2008an. Feminismoaz eta bertsolaritzaaz berbaldi eta tailer ugari emon dau Alberdik. Literatureari jagokonean, 2016an Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria irabazi eban *Besarkada* lanagaz. *Aulki-jokoa* (Elkar, 2009), *Euli-giro* (Susa, 2013) eta *Jenisjoplin* dira bere eleberrietako batzuk.

Onintza Enbeita (Muxika, 1979) umetatik hasi zuen bertsoetan eta 2006an heldu zuen lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finale-ra. 2005, 2009, 2013 eta 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian hartu eban parte. Bertsolaria izateaz gainera, euskera irakaslea, kazetaria eta politikaria be bada. Berrian idazten dau eta Espainiako Diputaduen Kongresuan diputadua izan zuen 2012tik 2016ra arte.

familientzat Parkeko perretxikoak ezetuteko ibilbide gidatua Gorbeia basoetatik Iker Garcia adituaren eskutik. Izen emotea gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

ARTEA

Arteako jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

DIMA

19:30ean, Etxean gure doguz-ek antolatutako lehenengo barikuko kontzertazinoa plazan.

LEMOA

Andra Mari jaiak Elizondon. 19:00etan, umeentzako jolas eta tailerak; 20:30ean, Zeanuriko Uribe Taldearen antzezlan.

URRI LEHENENGOAK 8
AREATZA

09:00etan, Gorbeiko Gurutzea Athletic Club Peñaren Gorbeia urtekera. Frontoian.

ARTEA

Goizaldeko 03:30ean jaietatik etxera bueltetako autobusa doban. Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatuta. 30 urtera arteko gazteentzat.

LEMOA

Andra Mari jaiak Elizondon. 12:00etan, mezea; 13:00etan, poteo musikatu "Kittu" gaz Bikandi tabernatik hasita; 15:00etan, bertsos bazkaria Kulturaguneko plazan. Bertsolariak: Uxue Alberdi eta Onintza Enbeita. Tikitak udaletxean salgai urri lehenengoaren 3ra arte; 17:15ean, I. Andra Mari Futbol Txapelketa, Lemoako Harrobi Taldeko nagusiak, Arlonagusian; 20:30ean, poteo musikatu Taberna ibiltaria taldeagaz Elizondotik.

URRI LEHENENGOAK 9
LEMOA

10:00etan, Lemoa Txirindulari Elkartek antolatuta, Lemoako erlojupeko I. BTT lasterketa. Gaztetxeko aparkalekuan.

URRI LEHENENGOAK 10
LEMOA

16:30ean, ludoteka zerbitzua hasiko da eta ikasturteko aurkezpena egingo da.

URRI LEHENENGOAK 13
LEMOA

09:00etan, Lemoa Jubilatu eta Pentsiodunen Elkartek antolatuta, Ainhoara eta Dantzarineara txangoa. Bazkaria Zugarramurdiko Azketa jatetxean. Txartel salmenta hilaren 3 eta 4an, 17:30etik 19:00etara.

URRI LEHENENGOAK 15
ARTEA

10:00etan, MerkArtea. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

13:00etan, Kalera Kalera ekimenak deituta, euskal preso, iheslari eta deportaduen aldeko kontzertazinoa Udalen aurrean; 15:00etan, bazkaria plazan. Txartelak Igorreko Axular Herriko Tabernan, Arteko Herriko Bentan eta txosnan egongo dira salgai.

ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak antolatutako astegoieneko urtekera. San Millan-Trigaza eta Otero-Cruz Demanda.

URRI LEHENENGOAK 16
ARRATIA

08:45ean, Arratiako Ibaiztetatik IX. Martxa. Zeanuriko plazatik urtenda.

AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatutako mendi urtekera Ubidetik Oketara iluntzeko basoko soinuz gozatzeko. Izena gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbide elektronikoa edo 94 673 92 79 telefonoan emon behar da.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Oroitze Eguna. Elorrio-Besaide.

URRI LEHENENGOAK 17
IGORRE

10:30etik 12:30era, Igorreko jubiladua antolatuta, oinarritzok sukaldaritza ikastaroa San Kristobalgot txokoa. Hurrengo saioak: urri bigarrenak 8, zemendiak 5 eta 9, eta abenduak 10.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BASERRIA SALGAI

Baseri barriztua saltzean da Areatzan. 210 m², 3 solairutan bananduak. 4 logela, komun bi. Terrenoa etxe inguruan. Herritik oso hur. 685 717 504 (Garazi).

AUTOKARABANEA SALGAI

Mercedes Viano Marco Polo salgai. Westfalia autokarabanea. 2.2 CDI 150 zaldi, automatikoa, 2004. urtekoa 215.000 kilometro. Granatea. Interesdunak 665 706 388 telefonora deitu.

DANERIK

TRIKITIXEA EROSTEN DOT

Bigarren eskuko trikitixea erosten dot, Sol tonoa balego hobe. Interesdunak 657 707 725 telefonora deitu.

GELA ALOKAIRUAN LONDONEN

Autobusez erdigunetik 30 minututara dagoan gela alokatzen da Londonen garagarriaren 14tik urri lehenengoaren 29ra. Interesdunak idatzi ugerka2@

hotmail.com helbide elektronikora.

ETXE BILA

Arratiatik baseri-etxe bila gabizan 4 andra gara (etxerako modukoak). Alkilerrean. Interesdunak 685 707 176 zenbakira deitu.

ESKOLA PARTIKULARRAK

3. DBH egitera doan Igorreko mutil batentzako persona bat behar da euskera, gaztelania eta ingeles ikasgaietan laguntzeko. Astean 3 ordu, urri lehenengoan hasita. Interesdunak estilanipa@gmail.com helbidera idatzi.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

BEGITUKO kamiseta bana.


Haritza Iturbe (Arantzazu)
Maitane Campo (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 16 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Kisketa. 2.- Hamar erromatar.
Lastima. 3.- Arsenikoa. Inozo.
4.- Bibliako pertsonajea, Abrahamen
iloba. Birritan, hortz-kirinkaren
onomatopeia. 5.- Oxigenoa.
Gorputz atal bat. Bokala. 6.- Hotza
adierazoteko. Musika nota.
7.- Zeruko argi. Zer. 8.- Bildua. Letra
bat. 9.- Ilunabar.

GOITIK BEHERA

1.- Eskuzarta. Ibide.
2.- Konsonantea. Begiratu. Narra.
3.- Astatoa. Estaldu. 4.- Antkina,
Islamismoan titulu moduan erabilia.
Letra mutua. Birritan, motorraren
zaratea. 5.- Eskuzabal. Kanpo.
6.- Sutegia. Ezetza. Azken letrea.
7.- Eroso. Baita.



Topau hogeigarren mendean asmatu ziran zazpi gauza.

A	A	T	S	I	B	E	L	E	T
A	L	O	I	G	U	N	E	R	A
O	T	R	A	R	R	A	D	A	R
I	N	D	E	R	R	A	M	A	K
P	O	E	L	U	A	A	O	D	E
O	I	N	A	K	L	A	T	X	I
K	O	A	L	A	I	Z	K	I	N
S	O	G	A	R	B	I	L	O	A
O	M	A	G	E	O	R	K	A	P
R	U	I	K	I	M	O	N	O	E
K	O	L	O	K	O	R	E	T	O
I	B	U	P	R	T	X	E	L	A
M	O	A	Z	K	U	L	A	M	A
A	N	I	K	Z	A	G	E	H	I
M	E	R	A	K	O	D	A	M	P

AKI MI KO

Iman Olatu



umean moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnua. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

AKEITEGIA
GATY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, s/n 48550 LEZMOA, Bizkaia
Tel: 609 482 830 • 609 206 717

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Tel: 609-79-40-54

ZEKUTZE
JATEETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutzejateetxea@hotmail.com

Pinturas Artisticas
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten
dogu Bizarra egin eta bukunduten dogu
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

AGURTZANE BENGEOA

"Ubiden biziteko isiltasuna gustau behar jatzu, lasai egotea"

Agurtzane Bengoa Ubiden jaio, Ubiden hazi, Ubiden bizi eta Ubideko Udaleko behargina da. Herriko isiltasuna, bizimodu lasaia eta inguruko mendiak maite ditu, eta herrian antolatzen diran ekintza guztietan parte hartzean dau: Irantzu Lekueren hormairudia pintetan, berbarako. Ez bakarrik pintau, hormairudia diseinetako aurreko bileretan be egon da. Eta BEGITURI emon deutzaz zehaztasun guztiak.

Erredakzinoa

Ubidera sartu ahala ikusten da hormairudiakaz pintetan zabizien eraikina. Zelan sortu zan eraikin horretan muralak pintetako idea? Irantzu Lekuek berak proposatu eban ala Udala edo herriaren ekimena izan da?

Hezkuntzan lan egiten dauan zinegotzi batek, Irantzuk Gasteizen margotutako mural baten parte hartu eban bere ikasleakaz, Lekueren muralak parte hartzaileak izaten dira-eta. Eta esan euskun berak pentsetan ebalatu Ubide apur bat girotzeko eta herri moduan egiteko ekintza aproposak zirala Irantzu Lekueren hormairudiak. Orduan, hartu-emonetan ipini ginan artisteagaz eta azaldu geuntsan zer gura genduan. Berak proposamen hau pasau euskun, uste ebalako sarrerako eraikin horretan ondo geratuko zala murala.

Irantzu Lekuek etxea dauka Ubiden eta bertan egon da biziten denporalditxo baten.

Zer da herri sarrerako eraikin hori?

Legutioko Urrunaga urtegia eta Undurragakoa batzean dauan hodia Ubide azpitik pasetan da.

Obra hori egin zan sasoiaren tunelak egin ziran eta aireztapeneko putzua egoan. Arnasa hartzeako eta materialak bajatuteko erabilten zan.

Ubiden sikatea egon zanean, aprobetxau zan ponpaketea ipini eta ura goiko depositora ponpatzeko.

Baina eraikina Udalarena da, ezta?

Bai, eraikina bai. Eraikina herrikoa da baina Ur Partzuergoak kudeatuten dau.

Noz hasi zinien murala pintetan? Zenbat jentek hartu dau parte?

Aurreko astean (abuztuak 20-26ko astean) hasi ginan margotzen. Baina aurretik bilera bat egin zan jentea parte hartzean animetako. Deialdia zabaltzeko betiko bitartekoak erabili genduzan: Hirix aplikazioa, herrian dagoan panela, iragarki taula, whatsapp bialdu taldeetara... Gero, Irantzu Lekuegaz bilera egin genduan. Berak erakutsi euskun bere lanak eta galdetu euskun ea zer pentsetan genduan guk panel horretan atera behar zala. Orduan bildu egin ginan herriko jentea eta ideak bota genduzan.

Zenbat bildu zinien hormai-

rudieren gaiaren gaineko eretxia emoten?

Hogeta hamar persona inguru edade guztietakoak. Nagusi-nagusiak, ume-umeak...

Ubidegaz loturea daukien gaiak atera ziran: txondorra, nondik sortzean dan Ubide, errementariak, abereak, jaietan ipinten dan arbolea... Apur bat desbardinak egiten gaituen gauzak, hain zuzen be.

Zer ikusirik dauka Ubidek txondorragaz?

Ubide sortu ei zan jentek hemen dagozan gauza bi aprobetxetako: errekea eta basoa. Basoa, txondorra egiteko. Hau da, Ubide sortu zan basoak eta ura daukaguzalako. Ondo begiratu ezker, konturako zara Ubideko eraikinak ez dirala nekazaritzakoak. Etxe txikiak dira, gehienak bere egunean, errementaria eukienak. Errementariak untzeak, perrak eta holango gauzak egiten ebezan. Eta hortik sortu zan Ubide. Horregaitik dagoz muralan untzeak eta perrak.

Baina heldu zan momentu bat errementaritzeak ez ebana biziteko lain emoten. Orduan, jentea abeltzaintzan eta baso lanetan hasi zan.

Beste gauza bat gura genduana hormairudian agertzea da estraperloa. Ubide Bizkaia eta Araba artean dago. Sasoi baten, aduana egeron zan, katea. Hormairudian estraperloa irudikatzen daben andra batzuk dagoz. Argazki bat dago eta han badagoz andra batzuk ustez gerraosteko errazionamentua batzean, eta hori agertzea gura izan dogu.

Estraperloa gerraostean gertatu zan bakarrik ala Ubideko Historiako beste sasoi batzuetan be bai?

Beti egon da estraperloa hemen: muga egon danean, estraperloa egon da. Gerraostean bai, baina baita gerra aurretik be. Estraperloa egiteko herriko eraikin bazuk erabilten ziran. Esate baterako, badago etxe bat muga-mugan: lorategitik sartzean bazara, Arabatik sartzean zara, eta etxe atetik urtenda Bizkaitik urteten zara.

Horreek gaiok bileran adostutakoan, zein izan zan hu-



rrengo pausua?

Irantzuk, bileran adostutako gaien gaineko bozeto batzuk ekarri eban eta guk bat aukeratu genduan. Ondoren, pinteteari ekin geuntsan. Lehenengotik margotu genduan dana kolore desbardinetan, bozetoaren arabera, eta gero Lekuek marrazten eban irudiak. Guk atzetik, berak esandako moduan birpasatzen doguz.

Zenbat animau zarie ekintza honetan parte hartzean?

Momentu desbardinetan persona desbardinak dagoz. Bakotxa joaten da gura dauanean. Lan boluntarioa da. Esate baterako, umeak joaten dira pintetan eta nekatutakoan errekarra joan eta olgetan ibiltzen dira. Gero, igoal, bueltetan dira barriro pintetan beste ordubeteko-edo. Gura dauanak gura dauanean joaten da.

Dana dala, herri osoaren-tzako ekintza lez dago planteautu, ezta?

Bai. Saiatzen gara herrian antolatuten jentek parte hartzeako gauzak. Nagusiak eta txikiak batera, ze 134 baino ez gara. Gau-

za bat talde batentzako bakarrik planteatzea ez da izaten oso bideragarria. Horregaitik, planteau zan edozein edadetako gura dauan jentek parte hartzeako ekintza lez. Baita herriari bizitasun apur bat emoteko be.

Zuk zeuk ordu asko egin dozuz murala pintetan. Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Oin dala hamaika urte erantzungo neutsun mendira joatea, frontoira, eskulanak... dirala nire zaletasunak. Umea daukadantetik, umea bera. Baina hasi danez apur bat indepenteago egiten, ba beste zaletasunak berreskuratu gura dodaz.

Ubidekoa izanda eta Ubide gustauta, mendira joatea, frontoian ibiltzea, kafetxo hartzea kuadrilleagaz... horreexek izaten dira gure zaletasunak. Aisialdirako, gauza lasaiak. Ze Ubiden biziteko gustau egin behar jatzu lasai egotea. Ez deutzat esango bakardadea, baina bai isiltasuna, eta norberarentzako momentuak eukitea. Uste dot hori dala herri baten jentek bilatzen dauana.

Arratiako AEK

MATRIKULA ZABALIK

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordutegi zabalak.

Agirre lehendakaria, 4/ Elexalde 10, Igorre
94 631 56 57/ 607 632 916 · arratia@aek.eus

Diru-laguntzak

Arratiako udal guztiek diruz lagunduta.



Zu hemen zaude, AEK ere bai

100 euskaltegi baino gehiago Euskal Herri osoan



EUSKARA-IKASTAROAK